

# txintxarri



## Lehertzeraino barre egiteko saioa

Lujanbiok, Labakak eta Alberdik jolas eder eta aldrebesari aurre egin behar izan diote bertso afari literarioan / 4

## Uhinen magiari lotuta

Irratian lanean ari diren bost herritarrek haien esperientzia azaldu diote TXINTXARRI-ri / 6-8

Oria-Gain eremuko etxebizitza sozialen proiektua 'Europar 15' lehiaketarako aukeratu dute / 2

Euskadiko txapelketa irabazi ostean, Espainiakoa du buruan Naroa Furundarena LOKEko atletak / 11

*Lente bat, mozorro bat*

Soilik **15€** -tan



White eyes



Wildfire



Cat's eye



Black eyes



Red devil



Konsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.  
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Kale Nagusia, 15  
Tel.: 943 37 74 55  
LASARTE-ORIA

**MULTIOPTICAS**  
lehena zerbitzu optikoetan

www.multiopticasgipuzkoa.com   



Udaleko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak, hitzarmen-sinatzearen ekitaldian. TXINTXARRI

## Oria-Gain eremuan ehun etxebizitza eraikiko dira

Orubeak 2,34 hektarea eta desnibel handia du. Eremuko irisgarritasun eza dela eta, proiektua 'Europan 15' programara aurkeztu dute. Etxebizitzak esleitzeko orduan, ohartarazi dute lehentasuna izango dutela Lasarte-Orian erroldatuta daudenek

### Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailak hitzarmena sinatu dute Ori-Gain eremuan alokairu sozialeko etxebizitzak eraikitzeko. Jesus Zaballos alkateak eta Ingurumen, Lurralde plangintza eta Etxebizitzako sailburu Inaki Arriolak aurkeztu dituzte hitzarmen berezi horren nondik norakoak.

Proiektu garrantzitsua dela azpimarratu dute bi erakundeetako ordezkariak. Ehun etxebizitza izango dituen auzo berria sortuko du Ori-Gainen, eta guztiak alokairu sozialera bideratuko dituzte.

Etxebizitza horiek esleitzeko, Euskadiko araudian ezarritako baldintzak eta eskakizunak bete beharko dituzte, eta aurreratu dutenez, lehentasuna izango dute Lasarte-Orian erroldatuak dauden pertsonak.

Izan ere, Lasarte-Oriako herritarren eskariari erantzuteko pausoetako bat da proiektua,

Zabaleta Berrin eta Zatarainen aurreikusiak dauden proiektuekin batera. Arriolak eskainitako datuen arabera, Etxebidieren zerrendetan 648 lasarteoriar daude eskatzaile modura; horietatik %71k alokairuko etxebizitza eskatu dute.

Zaballos alkateak eta Arriola sailburuak nabarmendu dute hitzarmen hau gauzatu duten erakundeen arteko lankidetzak. Arriolak etxebizitzaren arazoari aurre egiteko elkarlan hori funtsezkotzat jotzen du, eta alkateari arazoa konpontzeko duen prestutasuna eskertu dio.

### Europan 15 lehiaketa

Arriolak azaldu du alokairu sozialeko etxebizitzaren sustapena baino haratago doala proiektua; *Europan 15* programara aurkeztu dute. Europako lehiaketa bi urtean behin egiten dute. Kontinente osoko hainbat kokaleku aukeratzen dituzte eta Ori-Gain da horietako bat. 40

urtez azpiko arkitektoek haien proiektuak garatzeko aukera izango dute martxotik aurrera.

Aurtengo gaia "hiri emankorrak" da, eta Arriolaren hitzetan, idea hori bat dator Lasarte-Oriaren nortasunarekin. "Eremuak duen kokagunearengatik, landa eta industriatik gertu, eta ezaugarriengatik, programa honetara aurkezteko aproposa zela pentsatu genuen," jakinarazi du Arriolak.

Lasarte-Oriako Udalak uzten duen orubeak 2,34 hektarea ditu, eta desnibel handia du; beraz, auzo berria herriarekin lotzeko irisgarritasun irtenbideak beharko ditu.

Eusko Jaurlaritzaren aurreikuspenen arabera, 2023an edo 2024an prest egongo lirateke etxebizitzak. Baina lan guztiak hasi baino lehen, Lasarte-Oriako Udalak Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatu beharko du, Ori-Gainen familia bakarreko etxebizitzak eraikitzea arreakosten baitzen hasieran.

## Gatazkak era baketsuan konpontzeko ikastaroa

Ikastaroak bost saio ditu, eta martxoaren 14a eta apirilaren 11 bitartean eskainiko dituzte

### Txintxarri

Gatazken ebazpena ikastaroa eskainiko dute Manuel Lekuona kultur etxean. Ostegunero, 18:00etatik 21:00etara, martxoaren 14tik apirilaren 11ra izango dira saioak. Elkarbizitza gaietan aditua den Juanjo Gomezek zuzenduko ditu saioak.

Tailer honetan pertsonen arteko harremanak eta elkarbizitza landuko dituzte. Horretarako, taldeen alde positiboak eta negatiboak eta gatazken nondik norako aztertuko dituzte. Halaber, elkarbizitzarako eta gatazkei irtenbide baketsua emateko tresnak eskainiko dituzte.

Kontzeptuak rol jokoen, jolas kooperatiboen eta elkabizitza

dinamiken bitartez landuko dituzte. Ikastaroan erabiliko den hizkuntza ikasleen euskara mailaren arabera izango da. Izen ematea otsailaren 25etik martxoaren 5era bitartean egingo dute Manuel Lekuona kultur etxeke bulegoan, 9:00etatik 13:00etara.

Parte hartu nahi duten herritarrek 28,50 euro ordaindu behar dituzte, betiere, Lasarte-Orian erroldatuak badaude. Herrian erroldatuak ez dauden pertsonentzat ikastaroaren prezioa 47,50 eurokoa da.

Ikastaroa Danok Kide elkarteak antolatuta du eta Udalak sustatzen duen *Ikastaro irekiak 5+1* ekimenean dago txertatua.

## Udalaren lana azaleratzen

Legealdiko azken *Lasarte-Oria lantzen* aldizkaria aurkeztu du udalak. Egun hauetan etxe guztietara iritsiko den aldizkariak atal ezberdinetan azarotik hona udalak sustatu, diruz lagundu edo hitzartu dituen ekintzei eta kontratuei buruz jakinarazten du. Alkateak agerraldian azaldu moduz, aldizkariaren xedea udalaren lana "era aseptikoan" herritarrei helaraztea da. Aldizkariaren gastua 1.115 eurokoa da.



TXINTXARRI



LANDABERRI GURASOEN ELKARTEA

## Donostiara joateko deia

Landaberriko gurasoen elkarteak larunbatean erraustegiaren aurkako Donostiako manifestaziora joateko deia egin du, argazki erraldoi baten bidez. 17:00etan aterako da manifestazioa Antiguako tuneletik.

# Historia eta musika, 33. urteurrenean

1986ko otsailaren 15ean bihurtu zen udalerrri Lasarte-Oria. Egun berezi horretatik 33 urte bete dira asteburuan. Ospatzeko, hainbat ekitaldi egin dituzte. 'Retazos III' liburua aurkeztu du Jose Luis Navarrok, eta inpresionismo garaiko musika jo Duo Nebelek

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Pasa den asteko ostiralean bete zituen 33 urte Lasarte-Oria udalerrriak. Ospatzeko, pare bat ekitaldi egin zituzten: *Retazos III: bide luze eta neketsua independentziara bidean* liburua aurkeztu zuen Jose Luis Navarro idazleak, kultur etxean. Gero, Duo Nebel bikoteak inpresionismo garaiko musika eraman zuen Brigitarren komentura, gure herriaren ereserkiaren bertsiotzat eta guzti.

1866-1986 urte tarteko hamaika akta eta dokumentu jaso ditu Navarrok bere liburuan. Hainbat pasarte irakurri zituen kultur etxean, ikus-entzuleak kontestuan jartzeko. Esate baterako, Lasartek herri independente izatea erabaki zueneko, 1868ko Iraultza gertatu zenean. Ez zuen asko iratu aldarrikapenak: hilabete geroago Hernanik eta Urnietak baliorik gabe utzi zuten.

Duela 33 urteko akta Brigitarren komentuan sinatu zuten udalaren batzorde kudeatzaileko kideek, eta udalerrri bihurtu zen Lasarte-Oria. Bertan eskaini zuen ordu eta erdiko kontzertua Duo Nebel bikoteak: pianoarekin aritu zen Mercedes Medina, eta klarinetarekin Jose Miguel Martinez.



Hainbat kopia sinatu zituen Navarrok aurkezpena bukatutakoan. TXINTXARRI



Duo Nebelek musika emanaldi ederra eskaini zuen komentuan. TXINTXARRI



Ederki dantzatu zuten iaz Andaluzia Eguneko bazkariaren ostean. TXINTXARRI

## Dantza eta gastronomia, Andaluzia Eguna ospatzeko

Semblante Andaluz elkarteak igandean egingo ditu XXVI. Andaluzia Eguneko ekintza nagusiak

### Txintxarri

Semblante Andaluz elkarteak Andaluzia Erkidegoko Eguna ospatzeko adin guztietarako ekitaldiak antolatu ditu larunbaterako eta iganderako. Otsailaren 28an, Andaluzia Erkidegoko Egunean ere, ohorezko ardoarekin topa egingo dute.

XXVI. edizioko egitarauari hasiera emateko, hurren eguna egingo dute, bihar, larunbatean, 17:00etatik aurrera. Besteak beste, aurpegia margotzeko tailerra eta ipuin kontalaria izango dira. Elkarteko Duende dantza taldeak ere emanaldia eskainiko du. Arratsalde pasa hori amaitzeko, askariaz gozatzeko aukera izango dute haur guztiek.

Igandean, berriz, egun osoan, aurtengo ospakizuneko ekintza nagusiak egingo dituzte. Meza rocieroa izango da eguneko lehena. Semblante Rociero taldeak Arantzazuko Ama

Birjinaren elizako 12:00etako meza girotuko du.

Andaluzia Erkidegoko jaki gozoak dastatzeko aukera ere izango da. Hain zuzen ere, 14:00etatik aurrera, Semblante Andaluz elkartearen herri bazkaria antolatu dute.

Bazkal ostean, 17:00etan, elkartearen biltzen diren bazkide eta elkarteko lagunek abesti flamenkoak entzungo dituzte. Elkarteko oholtzan, Rubito Hijo eta Antonio Caceres izango dira.

### Andaluzia Eguna

Ekitaldiekin amaitzeko, otsailaren 28an, ostegunean, bazkideei eta gonbidatuei ohorezko ardoa eta jatekoa eskainiko dizkiete elkartearen. Musikaz girotuko dute ekitaldia.

Halaber, egun horretan, elkarteko zuzendaritza talde berria aurkeztuko dute, eta haien eginkizunen kargu hartuko dute.

## FAMILIA MILAKOLORE

Asmakizunak, abestiak eta poesiak.  
..ipuinak lantzeko!!

Otsailak 27, asteazkena  
17:45etik 18:45ak arte  
Ipuin irakurketa  
Mirentxueneako hitzaldi aretoan  
HH3-HH4koentzat



@TtakunKE



Izena emateko: Geltoki kalea 4, behea | aisia@ttakun.eus | 695 785 392



AZKEN  
2 PLAZAK

# Thailandia

**NOAOA**  
BIDAIAK

IRTEERA 2019ko MAIATZEAN  
Noaoak gidatutako talde bidaiak.  
Lasarte-Oriatik irtenda.

T.: 943 373 613 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria



Lepo bete zen Xirimiri larunbat gauean, Ane Labaka, Maialen Lujanbio eta Uxue Alberdi bertsotan entzuteko. TXINTXARRI

# Beste mundu bateko bertso afari literarioa

Bertso afari literarioa egin du Irakurle Txokoak, bosgarren urtez. Lepo bete da Xirimiri elkarteak, Ane Labaka, Uxue Alberdi eta Maialen Lujanbioren koplez gozatzeko. Oier Guillan idazleak jarri ditu gaiak. Lehertzeraino egin dute barre ikus-entzuleek

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Jendez lepo zegoen Xirimiri elkarteak larunbat gauean. Bapo afaldu zuten ikus-entzuleek: hummusa, krepeak, legatza labean patatekin, pantxineta eta kafea. Digestioa egiteko gintonika eta antzeko konbinatuak hartu zituzten batzuek. Kontrako ezarririk joan zitaion bati baino gehiagori, eta ez zen izan kargatuegia zegoelako. Lehertzeraino egin zuten barre Ane Labaka, Maialen Lujanbio eta Uxue Alberdi bertsolarien koplekin, eta Oier Guillan gai-jartzailearen ateraldiekin.

Guillanek aitortu zuen urduri zegoela, ez zegoela ohituta bertso saioetako gaiak jartzen. Nabaritu zen: etxean prestatutako gidoia irakurtzen hasterakoan, konturatu zen okerreko kopia eraman zuela Xirimirira. Ikus-entzuleei barkamena eskatu, eta paperen bila joan bitartean minutu bana eman zien bertsolariei "deskolokeari" buruz koptetan aritzeko. Hanka-sartzea

zirudiena gai-jartzailearen amarrua izan zen, ordea: tartetxo hori aprobetxatu zuen mediuze mozorrotu eta Xirimiri hankaz gora jartzeko.

## Iragana, oraina eta etorkizuna

Hiru rol horiek hartu behar izan zituzten Labakak, Alberdik eta Lujanbiok, hurrenez hurren. Iraganak galdera bat egin behar zion orainari; azken horrek, etorkizunari; eta, etorkizunak, iraganari. Jolas eder eta aldrebesa planteatu zien medium bihurriak, eta ederki aritu ziren hiru bertsolariak. Hurrengo tartean Alberdi eta Lujanbio aritu ziren. Gaia jartzen ari zela, Agurtzane andereñoa hel egin zuen mediumak. Gaztetxoa zela, OHO

## HARKAITZ CANO GONBIDATUKO DU IRAKURLE TXOKOAK MARTXOAREN 12KO SAIORA, ASTEARTEAN

garaian, matematikak irakatsi zizkion Agurtzane. Oinazea besterik ez du ezagutzen haren arimak azkenaldian, ez dakielako zer den normala eta zer ez. Galdera horri erantzuna topatzen lagundu zioten elgoibartarrak eta hernaniarrak.

Che Guevararen burua, izenik gabeko panpina, Miss Karaoke, Denis eta Itxaso... Beste hamaika protagonista zoro ekarri zituen Xirimirira medium gai-jartzaileak. Kopla, barre eta txalo artean bukatu zen saioa.

## Iñigo Aranbarrekin solasean

Irakurle Txokoak lan handia egiten du euskal literatura sustatzen. Irakurleak idazleekin jartzen ditu harremanetan, besteak beste, Iñigo Aranbarri ekarri zuen joan den asteartean.

Martxoaren 12an, asteartea, Harkaitz Cano lasarteoriatarra gonbidatuko dute, idazle horren azken eleberria aztertzeko: *Fakirren ahotsa*. 18:30ean elkartzeko dira, kultur etxean.



TXINTXARRI

## Txerrikiak, jateko prest

Txerria hiltzearen IV. jaia ospatu du Lasarte-Oriako Extremadura Etxeak asteburuan. Ostiral arratsaldean 110 bat kiloko animalia eraman zuten Berrobiko hiltzera. Larunbat goizean txorizo, odolki eta beste hainbat txerriki prestatu zituzten elkartearen egoitzan. Bazkariak eta afariak ere egin zituzten: garbantzuak, parrillan erretako haragia eta urdaiazpikoa.

## Aranbarrekin hizketan

Lasarte-Oriako Irakurle Txokoak gonbidatu bat izan du astearte honetan: Iñigo Aranbarri Azkoitiako idazlea. Eleberrri, poesia liburu eta saiakera asko idatzitakoa da Aranbarri, baina, batez ere, azkeneko liburuaz mintzatu da: iaz argitaratu zuen *Munduko tokirik ederrena* (Susa). Hamar ipuin harilkatu ditu idazleak galdera bati erantzuteko: Nola bizi atzoko guztiak hainbesteko pisua badu?



TXINTXARRI



UDAL MUSIKA ESKOLA

## Hainbat domina, piano jaialdian

Lasarte-Oriako Musika Eskolako ordezkariak izan zen Andoingo 14. piano jaialdian, otsailaren 16an eta 17an. Zuriñe Sarasola eta Junkal Arrese-Igor irakasleek prestatutako bederatzigarren gazteak parte hartu zuten hainbat kategoriatan: Gari Iraola, Aiora Toquero, Haritza Diaz de Gereñu, Maddi Fernandez, Nahia Goenaga, Leire Lopez, Aritz Ramos eta Unax Goenaga. Ilusio handia zuten gazteek, eta amaieran, domina eta diplomak eskuratu zituzten.

# Inauterietan, adin guztientzako ekintzak

Euskal Inauteriek pertsonaia berria izango dute: Sugarbiro. Guztiak batera Zubietatik aterako dira larunbatean. Martxoaren 1ean eta 4an, gazteei eta familiei zuzendutako 'Inahaldunak' egitasmoa egingo dute karpan: mozerro lehiaketa, musika eta ezustekoak

## Txintxarri

Euskal Inauteriak badatoz. Bihar, larunbata 23an, arratsaldeko 16:30etik aurrera, Zubietatik Lasarte-Oriara Euskal Inauterien desfilea egingo dute; gero herriko kaleetan ibiliko dira. Amaieran xomorro guztiak irudikatzen dituen Kaxkamalo erreko dute, 19:00ak aldera.

Euskal dantzak eta etnografia bateratzen dituen ekintza horrek hainbat berrikuntza aurkeztuko ditu aurten. Pertsonaia berria izango da: Sugarbiro. Xomorroak purifikatzen dituzten sugarrak irudikatuko dituzte horiek. Zaku eta larruekin joango dira jantzita, eta ikatzez belztuta. Desfilean txantxoekin batera ikusi ahalko dira, eta Kaxkamalo sutara botatzen ardura handia izango dute. Une horretan gazteek sorkuntza koreografia bat dantzatuko dute, eta Lasarte-Oria xomorroz eta gaitz guztiez garbituko dute.

Halaber, txantxoen irteera lekua aldatuko dute. Orain arte, zubietarrek bakarrik ematen zioten hasiera Euskal Inauterietako desfileari. Zubietan dantza egin eta Hipodromoko zubiraino bidea egiten zuten; bertan, Lasarte-Oriako txantxoek

kalejirarekin bat egiten zuten. Aurten, aldiz, txantxo guztiak Zubietatik aterako dira dantzan. Hipodromoko etorbideko zubian Lasarte-Oriako Euskal Inauterien korporazioa izango dute zain, herriarrek batera. "Zubietaraino joan nahi ez dutenek, zubian itxaron dezakete," ohartarazi dute antolatzaileek.

## 'Inahaldunak' Okendo plazan

Bestalde, inauteriak martxoaren 1etik 4ra egingo dituzte. Horretan ere izango dira berrikuntzak: Ttakun elkarteak antolatutako *Inahaldunak* egitasmoa programaren barruan sartu dute. Gazteak eta familiak protagonista izango dira egitasmo horri esker. Batzuk ostiralean, martxoaren 1ean, eta besteak astelehenean, martxoaren 4ean.

Iaz Ttakun Kultur Elkarteak Mirentxuenean egindako ekintzak arrakasta handia izan zuen. Aurten, udala eta konpartsen onespeneri esker, Antonio Mercero plazako karpan egingo da.

Martxoaren 1ean, ostiral mehean, 8-16 urte bitarteko gaztetxoei zuzendutako egitaraua izango da, 18:00etatik 21:00etara.

Lehiaketarekin hasiko dute arratsaldea. Taldeka parte hartu beharko dute, eta dantza edo bertsoak abestu beharko dituzte oholtza gainean, mozerroturik. Gehienez bost pertsonako taldeak izango dira.

Epaimahaiak bi sari banatuko ditu. Horretarako, originaltasuna eta sormena izango ditu kontuan. Herriko inauterietako gaia lantzeak (fikziozko pertsonaia), puntuak gehituko ditu. Izena ematea karpan bertan egingo dute, lehiaketa hasi baino lehen. Dantzaldia ere izango da, eta photocall berezi batean argazkiak atera edo mokadutxoak jateko aukera izango dute.

Familiek, aldiz, astelehenean, martxoaren 4an, izango dute hitzordua, 17:00etan. 2 eta 8 urte bitarteko haurren eta familien arteko harremana sustatzeko eguna izango da.

Mozorro lehiaketa, photocalla eta dantzaldia izango dute horiek ere. Lehiaketan belaunaldi desberdinen arteko kideak egotea hartuko da kontuan, baita herriko gaiarekin bat egitea ere.

Izena ematea aurretik egingo da, Ttakun Kultur Elkartearen, 943 371 448 telefonoan edo [aisia@ttakun.eus](mailto:aisia@ttakun.eus) helbide elektronikoan.



Etoko txikiek ederki gozatu zuten iaz 'Inahaldunak' egitasmoan. TXINTXARRI



Gaitz guztiak erreko dituzte Euskal Inauterietan. TXINTXARRI

## Konpartsen eguna, larunbatean

Bi astez izango dira inauteriak Lasarte-Orian. Euskal Inauteriek giroa berotzeko baliagarriak izango dira, hurrengo asteburuan, martxoaren 2an, konpartsen egun handia izango baita. Fikziozko pertsonaiez beteko da herria asteburu horretan, hori baita konpartsek aukeratutako gaia.

Edonola ere, martxoaren 2ko larunbata aurretik izango dira hainbat ekitaldi. *Inahaldunak* egitasmoaz gainera, ostiralean inauteri festa ere egingo dute eskoletan. 15:30ean hasiko da. Egun bat lehenago, ostegunean, Udal Musika

Eskolak Kontzertu Bufoa emango du, 19:00etan.

Larunbatean eguerdian hasiko da jaiak. Konpartsek aurkezpenean egingo dute 12:30ean, eta bakarkako mozerro lehiaketa izango da gero. Herri bazkaria 14:30ean hasiko dute, bakoitzak ekarritako bazkariarekin. Super Bingoa jokatu ondoren, konpartsen desfilea egingo dute. Ondoko hauek parte hartuko dute: Zabaleta, Zentro Zibikoa, Jalgune, Intzak Parrandan, Sasoeta Sasoian eta Erketz. Txokalada eta disko-jaiarekin amaituko da festa, iluntzean.



Konpartsak eta udal ordezkariak, programaren aurkezpenean. TXINTXARRI

# Uhinen olatuan

Herritar ugari lortu dute irratan bere bidea egitea. Kiroletan, albistegietan, entretenimenduan edo soinu mandoetan, denek dute lotura berezi bat hedabide horrekin. Lasarte-Oriako irratiagile batzuekin egon da TXINTXARRI, ahotsaren misterioak pizten duen xarmari buruz hitz egiteko.



NEURE KABUZ

MIKEL YARZA

## Bidelagun maite

Esnatu eta segituan zaitugu pizten. Atzoko gertakarien eta gaur jazoko direnen kontakizunaren erritmora gosaltzen dugu askok. Belarriak goxatu eta musika doinuak, elkarrizketak, anekdotak... ekartzen dizkio sukaldean dabilenari, lanera bidean denari, konpainia egiten dio eguna errepedean igarotzen duenari ere.

Haurra nintzela ezagutu zintudan, eta etxeko kide sentitu zaitut ordutik, beti piztuta, beti zerbait esateko prest. Arraroa izan da hondatu edota argindarrik gabe geratu zaren uneetan hitzik gabe, isilpean sumatzea.

Urteen poderioz aldatu gara biok, baita gure arteko harremana ere. Ezagutu zaitut barrutik, jakin dut etxera helarazten zenizkidan istorioak zein modutan osatzen diren, eta igaro naiz zure uhinen parte izatera, ahots bidezko ene mezuak Euskal Herri osora hedatzera. Ezagutu dut zure alderik gogorrena ere, presak eragindako tentsioa, bat-batekotasunaren aginduz galdutako mamia, elkar ulertu ez izanak sortutako frustrazioa.

Baina lagun izaten jarraitzen dugu, noski. Azken aldian, lotara joan aurretik entzuten zaitut bereziki gustura, begiak itxi eta infinitura hegan egin dezakedan une horietan. Hori baita zure magiarik bereziarena, hitzaren erabilera soilaren bitartez, gure irudimenean mundu berriak sortzea. Mila esker, irrati maite, gaurkoan ere.

# "Kirola egitearen parekoa da irratiaren adrenalina"

JON ALTUNA KIROLETAKO ESATARIA

Bizitzako bi zaletasun uztartzea lortu ditu Altunak: kirola eta irrati. Pasioz egiten ditu biak. Txirrindulari ohia izaki, batez ere kirol horretako kontakizunak betetzen dute

**Adrian Garcia**

Irratia helburuak lortzeko tresna izan du Jon Altunak (Lasarte-Oria, 1992). "Kiroletik bizi nahi nuen, eta kazetaritzak eman dit aukera hori". *Mundo Deportivo* egunkarian eta Euskadi Irratian aritzen da kirol kontuekin bueltaka.

**Prensa idatzia ala irrati, zer duzu nahiago?**

Irratian, argi gorria pizten denean, sortzen den adrenalina kirola egiteko sentsazioaren parekoena da. Sartu egiten zara partidaren edo lasterketan, eta kirol hori egiteko modu bat da. Zentzu guztiak hor dauzkazu jarrita: kontzentrazioa, emozioa... asko, asko gustatzen zait. Prensa idatzia ere gustuko dut; hausnarketarako tarte

handiagoa duzu, sakontzeko aukera gehiago.

**Lanetik kanpo ere entzuten duzu irrati?**

Bai, txikitik ez nintzen bereziki irratiagile, baina lanean hasi nintzenetik bai. Euskadi Irratia, noski, EITB Musika, eta ez dit lotsarik ematen aitortzeak gauetan Cope irratiaren entzule amorratua naizela.

**Nolako da mikrofonoz kanpo egiten den lana?**

Lan laukoitza dago atzean. Elkarrizketa lotzen, lekuetara joaten, prentsa arduradunarekin hitz egiten... Batzuetan oso erraza izaten da, baina besteetan mila oztopo gainditu behar dira, eta askotan ez da lortzen.

**Zein irrati esatari gustatzen zaizu gehien?**

Ruben Martin Copeko narratzailea gustatzen zait. Futbol esataria da, eta izugarriko pasioa jartzen dio. Zein taldekoa den sekula esan gabe, gai da modu berezi batean transmititzeko zer gertatzen den zelaian.

**Zer kirolekin aritzen zara eroso?**

Txirrindularitzan, zalantzarik gabe. Kirol hori pasioa izan da niretzat txikitatik, eta irrati ere hala bihurtu da. Nire bi pasio handiak elkartzen dira txirrindularitzari buruzko saioretan.

**Txirrindulari ohia zara, noski.**

Oso gertuko da kirol hori, horretan jardun dudalako denbora batez. Pilotan edo



Jon Altuna, pilota partida baten emankizunean. JON ALTUNA

futbolekin ere jokatu izan dut kalean, baina ez federatuta. Desberdina da, nahiz eta eroso ibiltzen naizen beste kirolei buruz hitz egiten.

**Entzule piloak dituzue Euskadi Irratiak. Horrek ardura sortzen al du?**

Egia esan, irratiaren nagoenean ez naiz jabetzen milaka pertsona ari zaizkigula entzuten. Momentuan ez behintzat. Kiroletan familia moduko giroa dugu, eta asko errazten du horrek.

# "Osagaiekin jolasean, istorio bat osatzen dut"

**MAIDER SEGUROLA** 'HIRI GORRIAN' SAIOKO GIDARIA

Txiki-txikitatik irratia lotuta dago Segurola. Pribilegiatua sentitzen da, pasioa lanbide bihurtzea lortu duelako. Orduak egoten da atzerriko irratiko 'podcast'-ak entzuten

**A.Garcia**

Ibilbide profesional guztia irratian egin du Maider Segurolak (Lasarte-Oria, 1982). Orain hamabost urte hartu zuen mikrofonoa bekadun gisa, eta egun *Hiri Gorrian* irratsaioa zuzentzen du. Txiki-txikitatik datorkio irratiarekiko grina hori. "Etxean oso irratizaleak izan gara beti. Beti erakarri nau izugarri; ikastolan *Maritxu Berritxu*-ra joan ginenean maitemindu egin nitzen, eta orain pribilegiatua sentitzen naiz nire lanbidea izatea lortu dudalako".

**Zerk erakartzen zaitu horrenbeste irratitik?**

Entzule bezala, gustatzen zait beste gauza bat egin bitartean kontsumitu dezakezula. Ez dizu arreta osoa eskatzen. Konpainia da. Ahotsa da bakarrik, eta badu bere misterioa.

**Eta lanerako?**

Sukaldean aritzea bezala da. Osagai batzuk daukazu, eta denbora jakin batean errezeta bat atera behar zaizu. Handik eta hemendik hartuta, osagaiekin jolasean, istorio bat kontatu behar duzu. Jolasa da; hau falta zait, beste hori gehituko diot, hura sartuko dut... Ni entretenimenduan nabil, pentsatzen dut albistegietan dabilen batek

beste modu batera ikusiko duela. Baina beti ikasten dut zerbait berria, jende asko ezagutzen dut... Oso aberasgarria egiten zait irratia.

**Hiri Gorrian saioan zaude. Nola ateratzen dituzue irratsaioan lantzeko gaiak?**

Arratsaldeko magazina da, eta horrek esan nahi du *prime time*-ak egingo dituela eguneko albisteak. Gu beti beste buelta baten bila ari gara. Goizak egiten duenari ezin diogu heldu. Gure gaiak ez daude egunkarietan, baizik eta tabernetako aldizkarietan, kaleko afixetan, autobusetako elkarrizketetan, kuadrillako



Maider Segurola, Euskadi Irratiko kazetaria. EITB

komentarioetan... Beti txip horrekin gabiltza.

**Azken finean, euskal unibertsoa erakusten duzue.**

Gure balio erantsia hori da, hemengo gauzak kontatzea. Horregatik iruditzen zait garrantzitsua lurraldetasuna errespetatzea; askotan joera da soilik Gipuzkoa aintzat hartzea. Baina mertzeria baten

bila Urruña edo Araiara joan gaitetzke, presentzia emateko jende horri.

**Lan gehiago eskatuko dizue horrek. Atzeko lan asko egongo da, ezta?**

Lau laguneko lantaldea gara, lanaldi osora. Implikazio asko dugu gainera, irratia bizi dugulako modu horretan. Bost ordu behar izaten ditut bi ordu zuzenean egiteko.

# "Albistegietako iruditik aparteko izaera dut"

**ASIER ODRIOZOLA** ALBISTEGIETAKO KAZETARIA

Irratian hasi zuen bere ibilbidea Odriozolak. Telebistan aritu ondoren, orain berriro da mikrofono artean. Bi hedabideak ditu maite: "Ezingo nuke bien artean aukeratu"

**A.G.**

Bide luzea du Asier Odriozolak (1968, Lasarte-Oria) irratigintzan; orain hogeitun baina gehiago hasi zen. Tartean egin du etenalditxo bat, albistegiak emateko ETBn. Irratira bueltatzeko aukera baliatu zuen orain gutxi.

**Telebista edo irratia. Zer nahiago duzu?**

Ezingo nuke aukeratu. Zure seme-alabetatik bat aukeratzea bezala litzateke. Biak maite ditut.

**Lan egiterako orduan, zer desberdintasun nabarmenduko zenuke?**

Telebista mamut handi bat da. Zerbait gertatzen denean pertsona



Asier Odriozola, irratian. TXINTXARRI

eta material gehiago mugitu behar dira. Motelagoa da. Irratian telefonotxo batekin informatzeko aukera duzu. Ezkutuan zaude, eta askatasun gehiago ematen dizu. Misterio horrek bere xarma badu.

**Misterio horretaz gain, zer da irratitik gehien gustatzen zaizuna?**

Gauza desberdin asko egin ditzakezu. Jende asko ezagutzeko aukera ematen dizu, eta hori asko estimatzen dut lan honetan, nire izaerarengatik. Eta, bestetik, telebistan ez bezala, dena ahotsarekin egin behar duzu. Keinuak ez, baizik eta entonazioa erabili behar duzu. Erronka horrek asko erakartzen nau.

**Ahotsak badu zerbait berezia; errekonozitzen erraza da. Baten batek ezagutu al zaitu ahotsarengatik bakarrik?**

Telebistarengatik ezagutu izanak ez nau harritzen, irudia hor dagoelako. Baina gehiago harritu izan nau inork ahotsarengatik ezagutu izanak. Telebistan beti oso dotore janzten zaituzte, eta agian txandalean zoazenean jendeak ez zaitu ezagutzen. Baina ahotsa nahastezina da.

**Batez ere albistegiak egin dituzu, irratian eta telebistan. Beste motako irratsaioak egitea gustatuko litzazuke?**

Bai. Albistegiek baino gauza lausoagoek erakartzen naute. Ez dut aukerarik eduki, baina badaukat ere alderdi hori. Jende askok seriotzat hartzen nau, baina ez naiz hala. Oso juergista izan naiz; albistegietan ematen dudan iruditik aparteko beste izaera bat dut.

**Nondik datorkizu irratizaleatasuna?**

Gure etxean aitak beti irratia piztuta zeukan, eta txiki-txikitatik entzuten nuen. Gaztetan ere gauetan entzuten nuen *El loco de la colina* Ser katean, ordu txikiak arte.

**Teknologiak asko aldatu al du irratia egiteko modua?**

Lana asko erraztu du. Baina xarma ere galdu du. Nik ezagutu ditut kaseteko grabazioak. Nire bizitzaren zatirik handiena sakelako telefonorik gabe egin dut. Gainera, lana kaletik atera du. Lehen kazetaritza erreala goa zen, kalean bertan aritu behar zinen. Orain kasik dena iristen zaizu erredakziora. Kazetari sentsazioa gutxiagoa da ziurrenik.

# "Fikzioaren mugan jolastea gustatzen zait"

**MAIDER GOROSTEGI** GAZTEAKO ESATARIA

Gaztea irrati katean goizetan, eta arratsaldetan bikoizketa estudioan. Baina beti mikrofono aurrean, ahotsa lantresna moduan, entretenimendua euskaraz eskaintzeko

**A. Garcia**

"Asko pentsatu gabe" hasi zen irradian Maider Gorostegi (1982, Lasare-Oria), baina konturatzerako hamabi urte eman ditu mikrofono aurrean. Kazetaritza ikasi zuen, eta praktikak egin ostean, Herri Irratian hasi zen. Gaztean proba batzuk egin, eta ordutik dabil kate horretan. Irratian ahotsak ematen dituen aukera horiekin jolastea gustatzen zaio, eta estudioetatik kanpo ere egin du ibilbidea. Bikoizketa eta telebistan ere jarduten du Gorostegik. "Nire tresna da ahotsa, eta horrekin lotuta gauzak egiten aritzen naiz".

**Zer da irratitik gustatzen zaizuna?**

Nire alde desberdinak erakusteko aukera ematen dit, askotariko pertsonaiak jorratzekoa. Gaztean fikzioarekin jolasten dugu asko. Fikzioa eta errealtatearen arteko mugan aritzen gara, eta asko gustatzen zait. Askotan galdetzen didate: "Hau egia al da?".

**Denbora librean irratia lotuta bizi zara edo nahiago izaten duzu atsedean hartu?**

Egia esan erabat deskonektatzea gustatzen zait. Goizetan irrati estudio batean sartuta egoten naiz, arratsaldetan ere grabazio estudioetan egoten naiz, eta

ateratzen naizenean beharrezkoa dut beste zaletasun batzuk egitea. Aire librea eta itsasoa gustatzen zaizkit lanetik kanpo.

**Asko aldatu al da irratia sartu zinenetik?**

Irratia gero eta gehiago da irudia. Jende askok badaki nortzuk garen. Lehenago hori ezkutuan mantentzen zen. Instagram eta sare sozialengatik mundu guztiak jakin dezake orain nor zaren. Hor nostalgia pixka bat sartzen zait. Gure garaian ez zenekien zeintzuk ziren esatariak.

**Entrenimenduko saioa egiten duzue euskaraz. Hizkuntzaren**



Maider Gorostegi. EITB

**erabilera bultzatzeko ekarpen polita egin dezake irratia, ezta?**

Bai, aukera oso ona da, eta mezu asko iristen zaizkigu horrekin lotuta. Alde horretatik, badugu erantzukizun handia. Euskararekin familiarizatu nahi duen jende askok esaten du gu entzuteko ahalegina egiten duela.

**Zer ezaugarri behar ditu irrati estari batek?**

Nik *Gaztea Formula* saioa egiten dut, eta lana gehienbat inprobisazioa da. Aurretik abestiak hautatu behar dira, baina zuzeneko egiteko naturaltasuna eta freskotasuna behar dira, eta enpatia izatea entzulearekin.

# "Erraztasun handia du irratia gertukoa izateko"

**MIKEL RETEGI** SOINU TEKNIKARIA

Musikan pentsatzen nahi zuen Retegik soinu teknikari izan, baina irradian lanean hasi zenean harrapatuta geratu zen. "Gero eta gehiago entzuten dut irratia orain"

**A.G.**

Irratian ezohiko ikuspuntua du Mikel Retegik (Lasarte-Oria, 1986). Esatariaren eta entzulearen arteko bitartekaria da bera; Euskadi Irratiko soinu teknikaria. Kristalaren beste aldetik bermatu behar du soinuaren ahalik eta kalitate onena. "Soinu iturriak, hala nola, mikrofonoak, musika, ahots adierazpenak, publizitatea... ahalik eta txukunen josi behar ditut, eta irratia errealizatu". Badu berezitasun bat bere lanak. "Zuzenean egiten dugu, eta berehalakotasunak asko zailtzen du dena".



Mikel Retegi, Euskadi Irratiko mandoetan. MIKEL RETEGI

**Nola hasi zinen irradian lanean?**

Musikari lotuta nentzen, eta Ikus-entzunezkoetarako Soinua goi mailako zikloa ikasi nuen. Praktikak egin nituen irradian, eta pixkanaka sartu nintzen. Badira dagoeneko hamabi urte.

**Oso desberdina al da lan hori musika munduan egingo zenukeenarekin?**

Bai, erabat. Grabazio estudio batean kalitateak du lehenetasuna. Hemen ere, garrantzia handia du, baina berehalakotasunak agintzen du. Esaterako, kontzertu batean soinu teknikari batek aurretik egiten du lan gehiena, probak egiten dituenen. Irratian datorrenari ahalik eta azkarren eta hoberean erantzun behar diozu. **Tentsio oneak izango dituzu, orduan.** Bai, batez ere albistegietan eta irratsaioen hasieran. Eta arazo bat dagoenean, noski; dei bat mozten denean, konexio batek huts egiten duenean...

**Nola dira zuen lanaldiak? Irratsaio batzuei lotuta zaudete, edo zuen txandan daudenak egiten dituzue?**

Nire lan ordutegian zuzeneko teknikari bezala nago. Irratsaio bat baino gehiago egiten ditut. 13:00etan hasten naiz albistegiaren, gero kirolak datoz...

**Nola koordinatzen zarete kazetariarekin?**

Normalean gidoi baten bidez. Batzuetan izaten dugu aukera hau eta beste komentatzeko, baina ia beti saioa hasi baino minutu bat lehenago hartzen dut gidoia.

**Irratia lehenagotik gustatzen zitaizun?**

Ez bereziki. Ikasten nengoela bagenuen irakasgai bat, eta hor hasi zitzaidan gustatzen. Hor sartu zitzaidan harra, eta orain zale amorratua naiz.

**Denbora librean ere irratia entzuten duzu?**

Bai, gero eta gehiago. Denetatik entzuten dut, gainera, baina normalean Euskadi Irratia. Beti arreta jartzen dut ea errealizazioa ongi egiten duten.

**Zer gustatzen zaizu gehien irratitik?**

Alde batetik, berehalakotasuna; uanean bertan kontaktzen dizkizu gauzak. Eta beste alde batetik, erraztasun handia du jendearen etxeetara sartzeko, gertukoa izateko. Askok oso gertuko sentitzen dute irratia; etxera deituko balute bezala hots egiten dute kontrolera, eta asko gustatzen zait hori.





# GREMIOEN GIDA 2019

*Arreta profesionalena, zugandik gertu*



**Elektrizitatea**



**Kristaldegia eta leihoak**

**ELECTRICIDAD ARREGUI**

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA  
Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21  
600 857 586 - www.electricidadarregui.com  
tienda.electricidadarregui.com (on-line denda)

**DEL ORIA KRISTALDEGIA**

Uistin kalea, 11 (Zubieta Plaza)  
Tel./Fax: 943 36 23 52 - M: 607 234 522

**20160 LASARTE-ORIA**

- ISPILUAK
- BEIRA APAINGARRIAK ETA ALAKATUAK
- MERKATARITZA-INSTALAZIOAK
- DUTXA-ITXIDURAK
- KRISTALGINTZA OROKORRA

**ISU**  
27. urteurrena

*Mota guztietako leiho, pertsiana, manpara, toldo eta dekorazioko profesionalak zure zerbitzura*

ZUBI TERMIKOAREN HAUSTURA, ALUMINIOA, PVC ETA POLIURETANOA

Kale Nagusia, 46 behea • Lasarte-Oria  
Tel. 943 36 64 95 • Faxa: 943 36 52 22  
ventanas\_isu@hotmail.com  
Pol. Ugaldea, 21 • 6 lokala, Usurbil

**ANORGA TXIBI S.L. KRISTALDEGIA**

- Komertzial instalazioak
- Beira bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutxa-itxiturak eta irristailuak
- Ispiluak
- Barandak
- Kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA  
943 37 17 33 • 610 45 93 45  
www.cristaleriaanorgatxiki.com



**Barne-Diseinua**



**Iturgintza**



**Igeltseritza**

**SUGATE**  
SUKALDEAK ETA BARNE-ERREFORMAK

Pintore kalea 5, Lasarte-Oria  
Tel: 943 36 14 71  
sugatesukaldeak@gmail.com  
www.sugate.net

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
- AURREKONTUA KONPROMEZURIK GABE
- HORMA-ARMAIRUAK
- ETXETRESNA ELEKTRIKO MARKA GUZTIAK

**ILLARRETA**  
ITURGINTZA  
IGELTSERITZA

- KONPONKETAK ETA ERAIKUNTZA zink, berun eta arbelean
- INSTALAZIOAK
- IGELTSEKETA OROKORRA
- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ETXEBIZITZEN ETA LOKALEN BERRIKUNTZA OSOA

**BULEGOA:** Geltoki kalea 14, Lasarte-Oria  
Tel. 943 36 31 47 eta 943 36 17 52.  
**TAILERRA:** Oialume bidea 24, Astigarraga  
info@illarreta.com

**ANTONIO ARREGUI, S.L. eraikuntza materialak**  
GAMMA

- Eraikuntza materialak orokorrean
- Zeramika
- Sanitarioak
- Komuneko konplementuak

www.gamma.es

**BILTEGI OROKORRA**  
Oria Etorbidea, 6  
20160 Lasarte-Oria  
Tel.: 943 36 64 73  
aarreguisl@ya.com

**ERAKUSKETA**  
Goikale, 2  
20160 Lasarte-Oria  
Tel.: 943 36 59 47  
Faxa: 943 36 59 47

**Hurrengo GREMIOEN GIDA martxoaren 29an**

**Bertan parte hartzeko:**  
**943 37 14 48 (106)**  
**646 82 44 66**  
**publizitatea@ttakun.eus**



Realeko jokalariek, goletako bat ospatzen. REAL SOCIEDAD

# Espainiako Kopako finala jokatuko du Realak

Anoeta zelaira joan diren ia 20.000 zaleen animoek hauspotuta, Espainiako Kopako final handira sailkatu da Realak, Sevillari nagusitasunez 3-1 irabazita. Iraia Iparragirre herritarra, min hartuta, ez du deialdian sartu Gonzalo Arconada entrenatzaileak

## Iñigo Gonzalez

Maiatzak 11, larunbata. Egun oso handia izan daiteke. Hobe esanda, egun handia izango da. Espainiako Kopako finala jokatuko du Realak egun horretan, Atletico Madrilen aurka, Granadako Los Carmenes futbol zelaian. Lehenengo aldia izango da txuri-urdinentzat. Iraia Iparragirre lasarteoriatarra deialditik kanpo geratu da, min hartuta zegoelako.

Merezita sailkatu da talde donostiara final handira. Sevilla baino gehiago izan zen joan den igandean Anoetan, eta argitasunez garaitu du, 3-1. Titulu bat irabaztetik partida bakarrera dago Realak. Valentzia, Rayo Vallecano eta talde andaluziarra utzi ditu bidean. Azken urratsa besterik ez zaie falta. Erronka zaila, Atletico Madril delako estatuko talde indartsuenetako bat, indartsuena ez bada. Final batean, ordea, faboritorik ez dago, gogo eta ilusioari dagokionez behintzat.

Partida hasteko modu hobirik ez dago: lehenengo minutuan sartu du 1-0koa Kiana Palacios aurrelariak. Aldeko abantaila kudeatzeko modu okerragorik ez dago: hurrengo jokaldian jarri du banakoa markagailuan Sevillak. Hasiara zoro horren ostan, jaitsi egin dira bi taldeen bihotz taupadak, eta orekatu egin da jokoa, Realak hobeto aritu den arren. Merezitako saria jaso

du 25. minutuan. Martak bere atean sartu du 2-1ekoa. Emaitza horrekin joan dira atsedena dirira bi taldeak.

## Lasaitasunaren gola

Ordurako zeukaten abantaila gorde, edo areagotzen saiatu? Ogitartekoa jan bitartean zalaren batek galdera hori egin badio bere buruari, azkar ikusi du Realaren erantzuna zein izan den: erasora atera da Gonzalo Arconadak zuzentzen duen taldea. Ez dira minutu asko jokatuko markagailua berriro aldatu den arte. Ane Etxezarretak bikain errematatu du ezker hegaletik zetorren erdiraketa bat, eta lasaitasunaren gola sartu du. 3-1ekoa. Granada, gertuago.

Azkeneko ordu erdian Mariasun Quiñones atezainak ez du lan gehiegirik egin behar izan, baina partidako geldiketa ikusgarriena berak egin du, Macaren jaurtiketa pozoitsua desbideratuta. Realak, orduan bai, bi goleko alde gorde nahi izan du, eta lortu du, finalerako txartela poltsikoratuz. Iberdrola Ligan zentratuko da taldea orain. Seigarren postuan da egun.

## HISTORIKOA DA BALENTRIA; LEHENENGO TITULUA IRABAZTEKO AUKERA DUTE TXURI-URDINEK

### ASTEBURUKO HITZORDUAK

#### FUTBOLA

ERREGIONALEN OHOREZKO MAILA  
**Añorga KKE - Ostadar SKT**  
 Igandea. 15:30. Rezola, Donostian.  
 ERREGIONALEN GORENGOA  
**Dunboa Eguzki CD - Ostadar SKT**  
 Larunbata. 16:00. San Jose Obrero, Iruen.  
 ERREGIONALEN 1. MAILA  
**Usurbil FT - Ostadar SKT**  
 Larunbata. 15:30. Harane, Usurbilen.  
 JUBENILEN OHOREZKO MAILA  
**Ostadar SKT - Iiintxa SD**  
 Larunbata. 15:45. Michelin Kirol gunean.  
 JUBENILEN 1. MAILA, IGOERA  
**Ostadar SKT - Eibar SAD**  
 Larunbata. 17:30. Michelin Kirol gunean.  
 KADETEEN OHOREZKO MAILA  
**Martutene KE - Ostadar SKT**  
 Igandea. 17:00. Martutene, Donostian.  
 KADETEEN 1. MAILA, KOPA  
**Ostadar SKT B - Usurbil FT**  
 Larunbata. 12:45. Michelin Kirol gunean.  
 INFANTIL OHOREZKO TXAPELDUNEN FASEA  
**Ostadar SKT - Antiguoko KE**  
 Larunbata. 14:15. Michelin Kirol gunean.

#### INFANTIL TXIKIAK, PARTE HARTZEA

**Ostadar SKT - Internacional CD**  
 Larunbata. 11:15. Michelin Kirol gunean.  
 INFANTILEN 1. MAILA  
**Ostadar SKT B - SANSE A**  
 Larunbata. 09:45. Michelin Kirol gunean.  
**Tolosa CF - Texas Lasartearra**  
 Larunbata. 10:30. Usabal, Tolosan.  
**ARETO FUTBOLA**  
 HERRIKO TXAPELKETA  
**Viña del Mar - Bar Buenetxea**  
 Larunbata. 09:15. Michelin Kirol gunean.  
**Patricio Cocktail Bar - Insausti taberna**  
 Larunbata. 10:15. Michelin Kirol gunean.  
**Trumoi taberna - Izengabe**  
 Larunbata. 11:15. Michelin Kirol gunean.  
**Academia London - Avenida taberna**  
 Larunbata. 12:15. Michelin Kirol gunean.  
 GIPUZKOAKO SENIORRA  
**Eskoriatza - Garoa Taberna**  
 Ostirala. 22:15. Eskoriatzan.  
**Gaintxu AFT - Aldaz Klinika**  
 Ostirala. 21:50. Bekoerrota kir., Lezon.  
 GIPUZKOAKO II. MAILA  
**Power Rangers KE - ISU Leihoak**  
 Ostirala. 20:30. Elorsoro kir., Oizartzenen.

#### GIPUZKOAKO JUBENILAK

**Aloña Mendi KE - Bar Lasarte**  
 Larunbata. 12:00. Zubikoa kir., Oñatin.  
 GIPUZKOAKO KADETEAK  
**Balardi Harategiak - Zarautz KE**  
 Larunbata. 11:20. M. Chourraut kiroldegian.  
**SASKIBALOA**  
 SENIOR LEHENENGO MAILA  
**Eskoriatza KE - Ostadar SKT**  
 Ostirala. 20:15. M. Muñoz kir., Eskoriatzan.  
 SENIOR HIRUGARREN MAILA  
**Kurkubi SBK - Ostadar SKT**  
 Ostirala. 20:00. Bekoerreta kiroldegia, Lezon.  
 JUNIOR ERRENDIMENDUA  
**Urbycolan Hondarribia - Ostadar SKT A**  
 Larunbata. 19:45. Hondartza kiroldegia Hondarribian.  
 JUNIOR PARTE HARTZEA  
**Ostadar SKT B - Saskilagunak SKT**  
 Larunbata. 16:00. M. Chourraut kiroldegian.  
 KADETE ERRENDIMENDUA  
**Ostadar SKT A - Easo Alquileres**  
 Igandea. 09:30. M. Chourraut kiroldegian.  
 KADETE PARTE HARTZEA

**Ostadar SKT B - CD Erroibide Iruen**  
 Igandea. 11:00. M. Chourraut kiroldegian.  
**ERRUGBIA**  
 SENIOR OHOREZKO B MAILA  
**VRAC Quesos - Zarautz Beltzak RT**  
 Igandea. 12:00. Pepe Rojo, Valladoliden.  
 SENIOR EUSKAL LIGA  
**Zarautz Beltzak RT - Marzola RC Rioja**  
 Igandea. 12:00. Michelin Kirol gunean.  
 14 URTEZ AZPIKOA  
**Zarautz Beltzak RT - Txingudi RT**  
 Igandea. 09:30. Michelin Kirol gunean.  
**IPAR MARTXA**  
 IRTEERA  
**Ametzagaina parkean barrena ibilaldia eta ondoren Easo parkera jaitsiera.**  
 Igandea. 09:00. Topo geltokian.  
**ATLETISMOA**  
 EUSKADIKO TXAPELKETA  
**Herriko hainbat atletek parte hartuko dute pistako 20, 18 eta 16 urtez azpiko pistako txapelketetan.**  
 Larunbata. 09:00 (goiz eta arratsalde). Antonio Elortza Velodromoan.

#### LASTERKETA

SAGAR LASTERRA  
**Herriko hainbat korrikalarik parte hartuko du 10km-ko proban.**  
 Larunbata. 11:00. Hernanin.  
 UZ TRAIL  
**Hainbat herritarrek parte hartuko dute 12,1km eta 23,4km mendi lasterketa probetan.**  
 Igandea. 09:45. Urretxu-Zumarragan.  
 LEZO-JAIKIBEL MENDI LASTERKETA  
**Herriko hainbat korrikalarik parte hartuko du 14km-ko proban.**  
 Igandea. 10:00. Lezon.  
 AIAKO MENDI LASTERKETA  
**Hainbat herritarrek parte hartuko dute 14,6km-ko lasterketan.**  
 Igandea. 10:30. Aian.  
 PILOTA  
 UDABERRI TXAPELKETA, SENIORRAK BIKOTEKA  
**Azkoitia 1 - Intza 1**  
 Ostirala. 19:00. Gurea, Azkoitian.  
**Intza 2 - Azkoitia 2**  
 Igandea. 11:30. Michelin Kirol gunean.

# Podiumera jauzi egin nahi du Furundarenak

Naroa Furundarena luzera saltoko onena izan da Euskadiko Txapelketa absolutuan. 20 urtez azpiko kategorian garaipena errepikatzen ahaleginduko da asteburuan, baina Espainiako Txapelketa du buruan. Martxo hasieran jokatuko dute Madrilen



Naroa Furundarena maila ona ematen ari da pistako txapelketetan. LOKE ATLETISMOA

## Txintxarri

Sasoi betean da Naroa Furundarena. Pistako azken txapelketetan lehen postuetan dabil lasarteoriarra, emaitza onak lortuta. Hain zuzen ere, jauzi hirukoitzeko bere marka hobetzea lortu du hilabete hasieran Euskadiko txapelketan. Iazko 11,49m-ak atzean utzi. eta 11,87m salto egin du. Asteburuan, 20 urtez azpiko erkidegoko txapelketan emaitza onak errepikatzen ahaleginduko da. Edonola, Espainiako Txapelketa du orain jomugan.

Martxoaren 2-3an jokatuko dute Madrilan. Hiru kosketako batera igotzea zail badu ere, haietatik gertu egon nahi du. LOKEko atleta luzera jauzian eta jauzi hirukoitzean lehiatuko da. Bere mailako zortzi onenen artean sartzea helburu du gazteak, eta Oscar Goikoetxea entrenatzaileak itxaropen hori du. "Podiumera igotzea zaila du, maila handia baita; baina gertu egon daiteke. Bere marka pixka bat hobetzen badu, lor dezake". Hau da, 12m-ra gehiago hurbildu beharko da, eta horrek, lehen boskotera eraman dezake.

Bi aste barru zer gertatuko den ikusteke dago; baina onenean heltzeko egin dute prestaketa. Azken emaitzek hala dela erakusten dute. Gipuzkoako absolutuan domina bana eskuratu zuen bi probetan. "Atsedean hartzeko", pasa den asteburuan, 20 urtez azpiko lurraldeko txapelketan 200m lasterketan parte hartu zuen. Hala ere, bigarren amaitu, eta segundo erdi hobetu zuen bere marka. "Sasoi betean dago".

Bihar Espainiako lehiaketaren aurreko azken saioa izango du. Izan ere, kadete, junior eta jubenilen Euskadiko lehiaketak jokatuko baitituzte Donostian. Bide onean jarraitzen duela erakutsi eta podiumera igotzeko aukera berri bat, Goikoetxearen ustez. "Irabazteko aukera asko ditu, domina ia ziur eskuratuko du, ez bada ezer gertatzen".

**Gonzalez, jubeniletan garaile** Furundarenarekin batera, Antonio Elortza Belodromoan LOKEko beste kide batzuk ere lehiatuko dira. Besteak beste, maila ona erakusten ari den beste lasarteoriar bat: Enara

Gonzalez da. Gipuzkoako txapelketan jubenil mailan luzera jauzian onena izan zen. 5,40m-ko saltoak garaipena eta Espainiako Txapelketarako txartela eman dizkio. Izan ere, 5,30m-ko gutxieneko marka gainditu baitzuen. Hortaz, estatuko hamabi onenen artean egongo da martxoaren 9-10ean Valentzian.

Goikoetxea pozik dago ere lurraldeko lehiaketan parte hartu zuten beste lasarteoriar batzuen errendimenduari; Leire Centeno, Nerea Eizagirre eta Nahia Surutusa. Azken biak pisua eta 60m lasterketan aritu ziren, goiko postuetatik nahiko urruti. Centenok, aldiz, brontzezko domina lortu zuen 800m lasterketan, 2:41' denborarekin. "Meritua du, serio entrenatzen duen lehen urtea baita. Ahaleginak emaitza izan duela ikusi du".

**ESPAINIAKO TXAPELKETAN ZORTZI ONENEN ARTEAN BUKATZEN AHALEGINDUKO DA**



ESPAINIAKO ERRUGBI FEDERAZIOA

## Alex Saleta hautatu du selekzioak

Espainiako errugbiko selekzioak deitu du Alex Saleta lasarteoriatarra, eta kontzentratuta egongo da 18 urtez azpiko taldearekin otsailaren 25tik martxoaren 3ra bitartean. Europako txapelketa prestatzeko aprobetxatuko du hautatzaileak. Saletak entrenamendu batzuk egingo ditu Madrilan, eta ondoren Evora hirira abiatuko da taldearekin, Portugalera. Litekeena da herrialde horretako selekzioarekin lagunarteko partida bat jokatzea. Zarautz/Beltzak taldean jokatzen du Saletak. Taldekide ohi bat izango du lagun selekzioan, Miarritzen jokatzen duen Urko Zumeta zarautzitarra.



Goroa Taberna, partida hasi aurretik. EGUZKI

## Merezitako garaipena etxean, sailkapenean gora begiratzeko

Teep Samaniego Orixe azken sailkatuaren aurka irabazi dute 4-1, eta laugarren dira dagoeneko sailkapenean

## Txintxarri

Garoa taberna Eguzki senior taldeak 4-1 irabazi zuen asteburuan Teep Samaniego Orixe Tolosaldearen kontra, Maialen Chourraut kiroldegian. Partida berdindua izan zen; bi taldeek markagailuan aurre hartzeko aukerak egin zituzten. Aitziberrek sartu zuen lehen gola, baina minutu gutxira Samaniegok berdinketa lortu zuen. Ondoren, urduri aritu ziren bi taldeak, eta Ainhoek

aurre hartzeko aprobetxatu zuen. Atsedenaaldiaren ondoren taldearen eraso hobetu zen eta Igone eta Sarairen gol bana egin zuten. Samaniego saiatu zen baina etxeko jokalariek ez zieten aukera garbiak sortzen utzi.

Hiru puntu garrantzitsu eskuratu zituen Garoak, sailkapenean laugarren mantentzeko. Lasarteoriarrak nagusi izan ziren eta 15 punturekin sailkapenaren erdialdean daude orain.

# Ostadar SKT, boccian eta eslalomean bikain

Ander Goenaga, Ane Asensio, Malen Urkiri eta Xuban Santin Ostadar Inklusioko kideak Gipuzkoako boccia eta eslalom txapelketako podiumera igo dira. Goenagak, Gipuzkoako azkarrena izateaz gain, txapeldunen txapelduna saria ere eskuratu du

## Txintxarri

Gipuzkoako boccia eta eslalom txapelketak jokatu dituzte Ostadar SKTko hainbat kirolarik, otsailaren 16an. Kirolaz gozatzeaz gain, emaitza bikainak ere erdietsi dituzte: urdinez eta beltzez koloreztatu dute podiuma.

Goizean, Malen Urkiri eta Ane Asensio ederki aritu dira Gipuzkoako boccia txapelketan: bigarren eta hirugarren postuak erdietsi dituzte, hurrenez hurren. Aniztasun funtzionala duten kirolarientzat espresuki diseinatutako kirola da boccia. Petankaren antzekoa da, eta 1984. urtetik da kirol paralinpikoa.

Arratsaldean ere maila ona erakutsi dute urdin-beltzek. Gipuzkoako eslalom txapelketa jokatu dute, eta oztupoak gainditzen benetan trebeak direla erakutsi. Erlojuaren aurka lehiatu dira kirolari batzuk, ibilbidea nork azkarrago osatuko. Ostadar Inklusioko hiru kide igo dira podiumera: Ander Goenaga, Ane Asensio eta Xuban Santin.



Eslalomeko proban podiuma urdin-beltza izan da. OSTADAR INKLUSIOA

Lasterketa kronometratuan ere hiru gaztetxo horiek izan dira azkarrenak, hurrenkera berean.

Azkenik, Goenagak txapeldunen txapelduna proba ere irabazi du. "Lan bikaina egin dute

kirolari guztiak", nabarmendu du Iurgi Olasagasti entrenatzaileak. Gorka Uzkudun kirolariaren lana ere azpimarratu du prestatzaileak: "Gaur debutatu du boccian eta eslalomean; ederki aritu da".



Ostadar Ipar Martxako kideak, ibilaldia hasi baino lehenago. OSTADAR IPAR MARTXA

## Haurren minbizien aurka makilak astindu dituzte

Igandean, otsailaren 24an, Ostadar Ipar Martxako kideek Ametzagañara irteera egingo dute

## Txintxarri

Ostadar Ipar Martxa taldeko kideek ez dute kale egin, eta eguraldi ezin hobea lagun, Aspenogi elkarteak antolatutako martxa piratarara joan ziren igandean, makilak eskuetan.

Donostian egin du ekitaldia Gipuzkoako Haur Minbizidunen Gurasoen Elkarteak. Gaztetxoek minbizien aurka makilak astintzeaz gain, ibilbideaz ere gozatu dute; talde argazki ugari atera dituzte. Horietako batean Star Wars filmeko pertsonaia batzuekin batera atera dira. Porrotx pailazo bihurria ere

joatekoa zen, baina Ostadarreko lagunek TXINTXARRI-ri kontatu diote gaixo zegoela, eta ezin izan duela parte hartu.

Datorren astean beste irteera bat egingo dute Ostadar Ipar Martxakoek.

Larunbatetan egiten dituzte txangoak normalean, baina Euskal Inauteriak ospatuko direnez herrian, igandera atzeratzea erabaki dute, hilak 24era. 9:00etako trenan hartu, eta Intxaurrendora joango dira. Bertatik, Ametzagaña parkean barrena ibili, eta Easo kalera jaitsiko dira.

## Olaso eta Hernandez, ederki Irungo maratoni erdian

Raul Gomez Margallo herritarrak hirugarren postuan amaitu du hamar kilometrotako lasterketa

## Txintxarri

Irungo Maratoi erdia eta hamar kilometrotako proba lehiatu dituzte asteburu honetan. 11 lasarteoriatar izan dira bertan lasterka; lau maratoi erdian eta zazpi hamar kilometrotako lasterketan. Horietako batzuk podiumera igo dira.

Maratoi erdian Mari Carmen Olaso eta Naiara Hernandez zazpigarren eta bederatzigarren izan dira sailkapen orokorrean, hurrenez hurren. Mailari dagokionez, Olaso (1:34:14) 50



Mari Carmen Olaso. J. ZATARAIN

urte baino gehiagoko beterrano mailako bigarren sailkatu da. Naiara Hernandezek (1:36:12) postu bera lortu du senior emakumezkoenean.

Horietaz gain, Leonardo Juarezek (1:33:53) eta Arantza Zapatak (2:02:15) igaro dute 21 kilometro baino gehiagoko lasterketako helmuga.


Halaber, Raul Gomez Margallo herritarrak Unai Arroyo eta Jose Antonio Gomez de Arribaren atzetik amaitu du hamar kilometro proba. 33 minutu eta 39 segundo behar izan ditu ibilbidea egiteko. Gorka Gil (00:36:47), Jon Altuna (00:39:00), Javier Martin (00:51:50), Jesus Lopez (00:51:51), Felix Rosado (00:54:13) eta Oscar Garcia (00:59:03) dira parte hartu duten gainontzeko lasarteoriatarrak.

## LOKEko gimnasta gazteak lehen proban lehiatu dira

LOKEko gimnastika erritmikoko eskolarteko mailako txikiek lehen lehiaketa izan dute igandean, Donostiako Karmelo Balda kiroldegian, eta emaitza bikainak erdietsi dituzte.

Alebin B mailan, Eneritz Diaz de Guereñu nagusi izan da. LOKEko ordezkariak jakitera eman dutenez, gimnastaren trebetasuna dela eta, epaileek hurrengo saioan bakarka A mailan eta taldean B mailan lehiatzeko baimena eman diote.

Maila berean, Maitane Sarmiento hirugarren sailkatu da, eta Landaberri taldeak bosgarren amaitu du saioa, pilota eta esku hutsik lan egin eta gero.




Eneritz Diaz de Guereñu. LOKE GIMNASTIKA

Infantil B mailan, guztiak uztaiekin egin dute lan. Alexia Barquin bigarren izan da, Aitana Molano eta LOKEko taldea berri, bosgarren. LOKEko arduradunak oso pozik daude gimnasta gazteek egindako lanarekin.

## ZORION AGURRAK




**Bea**  
Zorionak Bea. Oso ondo pasa zure urtebetetzean. Muxu handi bat zure lagunen partez.



**Eire**  
Zorionak printzesa!!! Oso ondo pasa zure 9. urtebetetzean. Muxu pila familia guztiaren partetik.



**Raul**  
Zorionak aitaxo guapeton. Ondo portatuko gera zurekin egun oso ona pasatzeko, merezi dezue eta. Muxuak, Amaiur, Ekain eta amatxoren partetik.



**Richard**  
Zorionak Begoña, Patxi, Imanol, Iciar, Pablo eta Maiteren partetik.



**Naiara eta Aingeru**  
Zorionak maitiak! Muxu potolo-potolo bat familiaren partez!

## Urte askotarako!

Zoriondu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu horretarako

### Internet

Txintxarri.eus-en txintxarri.eus/ zorionagurrak eta bidali zure zorion agurra formularioa bete. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

### Posta elektronikoa

Mezua bidali txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzea.

Asteazkeneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## JAIOTAKOAK

**Kaia Rodriguez Gonzalez.** Otsailaren 7an.  
**Enara Iparragirre Zelaia.** Otsailaren 12an.  
**Marco Ruiz Atorrasagasti.** Otsailaren 13an.

## HILDAKOAK

**Lucia Oyarbide Olabide.** Otsailaren 20an.  
**Juan Iraola Segurola.** Otsailaren 19an.  
**Valentin Ado Alizugaray.** Otsailaren 16an.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 22 DE MIGUEL  
Larunbata, 23 ORUE  
Igandea, 24 ORUE  
Astelehena, 25 LASA  
Asteartea, 26 GIL  
Asteazkena, 27 ACHA-ORBEA  
Osteguna, 28 URBISTONDO

**EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00**  
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00**  
Castilla-Larburu: Urbieta kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).


## TELEFONOAK

**UDALAREN TELEFONOAK:**  
ERREGISTROA: 943 371 629  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184  
KIROLDEGIA: 943 376 182  
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179  
KIUB: 943 361 605  
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621  
MUNTERI AEK: 607 625 233


**LARRIALDIKO TELEFONOAK:**  
OSASUN ZENTROA: 943 007 960  
DYA: 943 464 622  
GURUTZE GORRIA: 943 363 953  
UDALTZAINAK: 943 362 442  
ERTZAINZA: 943 538 840  
SOS DEIAK: 112

## EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 22




Larunbata, 23




Igandea, 24




Astelehena, 25



Asteartea, 26



Asteazkena, 27



## SUDOKUA


9	7			3	4			5
		4	9					
						6	4	
4					7		6	8
1				8	9			4
		8	4					
					5	2	8	
8	5			2		4		7
		9	8					

## OHARRAK

### Odol ateratzea

Otsailaren 25a, hilabeteko azken astelehena izanik, odol emaileen elkarteko kideek odola aterako dute osasun zentroan. Arratsaldeko 17:30etik 20:30era izango dira odol emariak jasotzen.

KOMIKIA



AZOKA TXIKIA

**LANA**

**ESKARIA**

Pertsonak zaintzeko eta garbiketa lanetarako eskaintzen dut neure burua. 632687583

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna edo

externa bezala. Telefonoa: 663488438.

Pertsonak zaintzeko eta garbiketa lanetarako eskaintzen dut neure burua. 631895039.

**ALOKAIRUA**

Garaje marra bat alokatzen da Lasarte-Oriako hipodromoko

etxebizitzetan. Telefonoa: 648 614 769.

**NABARMENDU ZURE EDUKIA**

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira


**TAMAINA BERRIA**

Modulo txikia. 12 € + BEZ publizitatea@ttakun.eus 646.824466

**TAMAINA BERRIA**

Modulo handia. 20 € + BEZ publizitatea@ttakun.eus 646.824466

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

**Argitaratzailea**

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 LASARTE-ORIA  
G-20407557

**Administraria**

Nerea Garziarena.

**Erredakzioa**

Nerea Elizagire, Inigo Gonzalez, Maitane Aldanondo eta Adrian Garcia.

**Publizitatea**

Irati Zatarain.

**Laguntzaileak**

Gorka Lasa, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maider Galardi, Mikel Yarza, Nerea Segura eta Aizpea Amas.

**Banatzaileak**

Ioar Gainza, Egoitz Epelde, Erlantz Ezeiza, Inigo Garcia, Naiara Goikoetxea.

**Informatika zerbitzuak**

IZT Informatika.

**PUBLIZITATEA**

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
publizitatea@ttakun.eus

**EGOITZA NAGUSIA**

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
txintxarri@txintxarri.eus

**Inprimategia**

Zeroa Multimedia, S.A.

**Lege Gordailua:** SS-513/94

**ISSN:** 1134-0053

**Tirada:** 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLITICA LINGUISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



**LASARTE-ORIA Euskal Inauteriak.** Egun osoko egitaraua antolatu du Euskal Inauterietako batzordeak. Goizean, elkarte elkarte puska bila joango dira. Arratsaldean, berriz, txantxoak Zubietatik irten eta Hipodromo etorbidean egingo diete harrera. Ostean, kalejira egingo dute Lasarte-Oriako erdiguneko kaleetan, eta Kaxkamalo erreko dute, Okendo plazan. Lasarte-Oriako kaleetan, bihar, larunbata, egun osoa.

## Euskal Inauteriak

Egitaraua:

**11:00etan,** Puska bila txistularien laguntzarekin.

**16:30ean,** dantza, Zubietako plaza.

**16:45ean,** Zubietatik aterako dira txantxoak.

**17:00etan,** Txantxoei harrera egingo diete, Hipodromoko zubia.

**17:15ean,** senidetze dantza.

**17:30ean,** Kalejira herriko kaleetatik.

**18:30ean,** suaren ekitaldi berritua eta Ttirriki Ttarrakaren erromeria, Okendo plaza.

Ostean, txokolate jana.

## LARUNBATA 23

**LASARTE-ORIA Elkartasun bazkaria** Mendebaldeko Sahararekin elkartasun egunak egitarauan, bazkari sahararra egingo dute. **Furia Beltza, 14:00etatik aurrera.**

**LASARTE-ORIA Andaluzia Eguna** Haurrei zuzendutako ekintzak izango dira: aurpegia margotzeko tailerra, ipuin kontalaria... Duende dantza taldearen emanaldia ere izango da. Amaitzeko askariaz gozatuko dute haur guztiek. XXVI. Andaluzia egunaren ospakizunetako ekintza. **Semblante Andaluz elkarteak, 17:00etatik aurrera.**

### DONOSTIA Manifestazioa

GuraSOsek deituta **adOStASUNari esan baietz!!!** manifestazioa egingo dute Donostiako kaleetan barrena. **Antiguoko tunela, 17:00etatik aurrera.**

## IGANDEA 24

**LASARTE-ORIA Andaluzia Eguna** Andaluzia Eguna ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu Semblante Andaluz elkarteak: **12:00etan,** meza rocieroa, Arantzazuko Ama Birjinarren eliza. **14:00etan,** herri bazkaria. **17:00etan,** Rubito Hijo eta Antonio

Caceresen emanaldia. **Semblante Andaluz elkarteak,** egun osoa.

### ASTIGARRAGA Musika

Demode Quartet taldeak **Epa Txiki** ikuskizuna eskainiko du. Euskal doinu tradizionalen moldaketa harrigarriak eta umorea nahasten dute emanaldian. Sarrera, hurrek 2,5 euro eta helduek 5 euro. **Kultur etxean, 17:00etan.**

## ASTELEHENA 25

### LASARTE-ORIA Erakusketa

Itsaspeko Nazioarteko zikloaren azken saioa. CIMASUB 2018ko argazki irabazleak erakutsiko dituzte. **Momentos Robados, Philippines, Ocean's shock, Los secretos del angel, Pisciforms, Black & Blue, Truk Laggon eta De cerca** film laburrak ikusi ahaliko dira. Danok Kide elkarteak eta CIMASUBek elkarlanean antolatutako ekintza. **Manuel Lekuona kultur etxea, 19:00etan.**

## ASTEARTEA 26

### LASARTE-ORIA Erakusketa

CIMASUB-en 2018an aurkeztu ziren argazki hobereenen erakusketa ikusteko azken eguna. **Manuel Lekuonako kafetegia, 17:00etatik 21:00etara.**

## ASTEAZKENA 27

### LASARTE-ORIA Familia mila kolore

Ipuin irakurketa antolatu du Ttakun Kultur Elkarteak HH3-HH4ko haurrentzat. Asmakizunak, abestiak eta poesiak... ipuinak lantzeko. Izen ematea, Ttakunen. **Mirentxuenea, 17:45ean.**

### LASARTE-ORIA Elkarretaratzea

**Maroko Sahararik at. Independentzia Sahararentzat** lelopean elkarretaratzea egingo dute. Mendebaldeko Sahararekin elkartasun egunak egitarauko ekintza. **Okendo plaza, 19:30ean.**

## OSTEGUNA 28

### LASARTE-ORIA Musika

Udal Musika eskolako ikasleek Inauterietako kontzertua eskainiko dute. Doinu ezagun eta mozorro ugari ikusi ahaliko da oholztan. **Manuel Lekuona, 19:00etan.**

### LASARTE-ORIA Andaluzia Eguna

Andaluzia Erkidegoko egunean, **Semblante Andaluz elkarteak** bazkideei eta gonbidatuei ohorezko ardoa eta jatekoa eskainiko dizkie. Musikaz girotuko dute ekitaldia. **Semblante Andaluz elkarteak, 20:00etan**

## ZINEMA

### LASARTE-ORIA

#### MANUEL LEKUONA

**The Guilty (JBGA)**  
Ostirala: 22:00.

**Uno mas en la familia**  
Igandea: 17:00.

**La favorita**  
Igandea: 19:30.

#### ANDOAIN

#### BASTERO

**Green book**  
Larunbata: 19:30.  
Astelena: 22:00.

#### USURBIL

#### URBIL

#### Cómo entrenar a tu dragón 3

Ostirala: 16:00, 17:00, 18:20, 18:40, 19:20, 20:10, 21:40.  
Larunbata: 16:00, 17:00, 18:20.

18:40, 19:20, 20:10, 21:40.  
Igandea: 16:00, 17:00, 18:20, 18:40, 19:20, 20:10, 21:40.

**Alita: Ángel de combate**  
Ostirala:

16:30, 19:15, 22:00, 00:40.  
Larunbata: 16:30, 19:15, 22:00, 00:40.  
Igandea: 16:30, 19:15, 22:00.

#### Perdiendo El Este

Ostirala: 15:50, 17:50, 20:40, 22:40, 00:55.  
Larunbata: 15:50, 17:50, 20:40, 22:40, 00:55.  
Igandea:

15:50, 17:50, 20:40, 22:40.

#### Feliz día de tu muerte 2

Ostirala: 20:25, 22:35, 00:45.

Larunbata: 20:25, 22:35, 00:45.  
Igandea: 20:25, 22:35.

#### Bajo el mismo techo

Ostirala: 15:40, 17:55, 22:30, 00:45.  
Larunbata: 15:40, 17:55, 22:30, 00:45.  
Igandea: 15:40, 17:55, 22:30.

#### Una cuestión de género

Ostirala: 19:50, 22:20, 00:50.  
Larunbata: 19:50, 22:20, 00:50.  
Igandea:

#### María, reina de Escocia

Ostirala: 00:15.  
Larunbata: 00:15.

#### La LEGO Película 2

Ostirala: 15:45, 18:05.

Larunbata: 15:45, 18:05.  
Igandea: 15:45, 18:05.

#### Green Book

Ostirala: 18:50, 21:30.  
Larunbata: 18:50, 21:30.  
Igandea:

#### Creed II: La leyenda de Rocky

Ostirala: 16:10, 21:45, 00:30.  
Larunbata: 16:10, 21:45, 00:30.  
Igandea:

#### La favorita

Ostirala: 00:00.  
Larunbata: 00:00.

#### El regreso de Mary Poppins

Ostirala: 15:55.  
Larunbata: 15:55.  
Igandea: 15:55.



## LABURPENA

### The Guilty (JBGA)

**Zuzendaria:** Gustav Moller. **Gidoilariak:** Emil Nygaard Albertsen, Gustav Möller. **Herr.:** Danimarka (2018). **Antzeleak:** Jakob Cedergren, Jessica Dinnage, Omar Shargawi, Johan Olsen, Maria Gersby, Jakob Ulrik Lohmann, Laura Bro, Katinka Evers-Jahnsen, Jeanette Lindbæk, Simon Bennebjerg, Morten Suurballe, Guuled Abdi Youssef. **Iraupena:** 85 minutu.

## Erreskate gorabeheratsua

Gustav Moller zuzendariaren lehen filma da *The Guilty* thrillerra; zer esana eman du lanak.

Filmak hainbat zinema jaialditan lehiatu du, eta sariak eskuratu ditu, hala nola, zuzendari onena Seattle eta Philadelphiako jaialdian, eta gidoi onenaren saria Sundance jaialdian eta Valladolideko Semincin.

Halaber, Danimarkak Oscar sarietarako aukeratu zuen, baina ez da hautagai izango.

Filma Asger Holm poliziaren lanegun batean oinarritzen da. Laneko ezbehar bat dela eta, Holm zigortu egin dute, eta

larrialdietako zerbitzuetako telefonista postura bidali dute. Gaueko txanda aspergarri bat amaitzeko dela, emakume aztoratu baten deia jasoko du. Azalduko dionari esker, emakumea bahituta daukatela konturatuko da. Bere lankideen laguntzaz, emakumea askatzen saiatuko da. Asgerrek egoeraren gorabehera aurre egin beharko die, baita bere deabru pertsonalei ere.

Okendo Zinema taldearen zine forum atalean eskainiko da filma, jatorrizko hizkuntzan eta gaztelerako azpidatizkiekin. Ostean solasaldia izango da.

# Haur sahararrak udan hartzeko jende bila

Mendebaldeko Saharako haurren udako egonaldiak kudeatzen ditu 'Oporrak Bakean' programak. Lasarte-Oriako norbanakoak nahiz familiak haurrak hartzera anima daitezten, espero dezaketenen berri eman dute 'Orain bi familia ditut' hitzaldian

## Txintxarri

Tindufeko (Aljeria) errefuxiatu kanpalekuetako egoera latzetatik etena egiteko aukera ematen die *Oporrak Bakean* programak 8-12 urteko haur sahararrei. Osasun azterketak egin, hobe elikatu eta indarrak hartzen dituzte bi hilabeteko egonaldian, basamortuko baldintza gogorretara bueltatzeko. Indarberitzeaz gain, errealitate berri bat ere ezagutzeko parada dute; jolastea eta lagunak egitea beste kezkarik ez dute.

Horretarako, ordea, uda haiekin partekatuko duten familia nahiz norbanakoen elkartasuna behar dute.

Interesdunak badira ere, pausoa ematea kostatu ohi da. Urratsa egitera ausartu eta damutu ez zaienakoak dira Alicia Garcia, Arkaitz Naya eta Monika Rosales lasarteoriatarrek.

Haurrentzako onuragarri den bezala, familientzat ere aberasgarria dela argi utzi zuten euren bizipenak partekatuta. Gozoa nabarmendu zuten, gazia ahaztu gabe. Rosalesek, kasu, Mohamed hiru oporralditan hartu zuen etxean. Elkar ezagutu zuten uneko ezinegona gogora ekarri zuen: haurrak negar egiten zuten, ezin zuten elkar komunikatu, ez zuten lasaitzen uzten... hartutako erabakia

zalantzan jarri zuen. Egunek aurrera egin ahala ordea, denak hobera egin zuen, eta abuztua heltzerako, egoera erabat bestelakoa zen. Okendo plazako topagunean gainerako familiekin sortutako harremana oso lagungarria izan zitzaion. Bai kezkek, zalantzak eta frustrazioak partekatzeko bai elkarri babesa emateko. "Asko jaso dut Mohamedgandik. Oso zorionez sentitzen naiz. Baita prozesuan ezagutu ditudanengatik ere".

## Erabaki adostua

Argi utzi zuten ez dela familia eredu zehatz bat izan behar parte hartzeko. Garciak, esaterako,



Antonio Mercero gunean elkartu ziren familietako batzuk astezkenean. TXINTXARRI

lagun batekin partekatu zuen ardura; uztailan berak, abuztuan, lagunak. Antolatze modua dena delakoa izanda, pertsona horrentzat denbora eta gertuko egitura bat izateko beharra nabarmendu zituen Nayak. "Erabakia familia osoak aho batez hartu behar du, konbentziturik, bestela arazoak egongo dira haurrak arreta behar eta eskatzen duenean".

Udalak zortzi haurren bidaia ordaintzen du urtero. Gero eta gutxiago datoz, baina beharra bere horretan mantentzen da. Oraingoan, hiru haurrek izango dute herrian udan pasatzeko aukera. Gainerakoei aukera eman nahi dietenek Mirentxueneko gizarte zerbitzuetan informazio gehiago jaso eta beharrezko izapideak egin ditzakete.


txintxarri  
www.txintxarri.eus/gida

Denda, taberna, jatetxe edo enpresa bat duzu?

Parte hartu gidan!

42€  
urtean

GIDA  
KOMERTZIALA



- Gida osatua, eguneratua eta erabilgarriena.
- Lasarte-Oriako denda eta enpresen telefono gida.
- Sarean, mugikorretan, tabletetan...

GIDAN PARTE HARTZEKO: [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus) 943 37 14 48 (106) • 646 82 44 66 Geltoki kalea, 4 Lasarte-Oria

EUSKAL  
INAUTERIAK  
OTSAILAK 23 • LASARTE-ORIA

11:00-13:00 | Herrian barrena, elkarteetan zehar PUSKA BILA

16:30 | Zubietako plazan ekitaldia

16:45 | Zubietatik Hipodromoko zubira KALEJIRA

17:00 | Herritarren HARRERA txantxoei

17:15 | SENIDETZE DANTZALDIA

17:30 | Kalejira herritik

18:30 | Erromeria eta suaren ekitaldi berriua  
Amaitzeko, txokolatada goxoa Okendo plazan

